# Enkarterrietako ALTXORRAREN BILA

## ENKARTERRIETAKO ARKITEKTURAREN FASEA

### 5. eta 6. asteak

Enkarterriko arbasoek utzitako aztarnak ugariak dira. Horiekin Eusjal Herriko zonalde honetako historia luze eta zoragarria berregin dezakegu.

Azken fase honetan erronka berria proposatzen dizuegu. Enkarterritik lagundu iezaiguzu paseoa ematen. Azkenean zuen saria irekitzen duen giltza topatuko duzue.

Asmatu beharko duzu hitz egiten ari garen lekua zein den. Erantzuna zuzena bada bazter batean zure giltza izango duzu zain.

1. "I. mendetik gaur arte mugitu gabe egon naiz, gertaerak nola suertatzen ziren ikusten. Garai batean behar-beharrezkoa nintzen. Horregatik zaindu eta oso ondo tratatzen ninduten. Nire gain merkatari, soldatu eta erromesen pisua jasan nuen... baina ustekabean nire beharra ez zuten izan eta aldendu ninduten. Nahiz eta horrela izan, oraindik emen nago, lehen bezala mugitu gabe, bidaiarien zain"

2. "Nire zabaltzatik mende oso baten zehar gatazka odoltsuak suertatu ziren. Zaldunek, gudariek eta jaun poteretsuek nire barnean jai egin, jan eta lo egin zuten. Nahiz eta jaiotzen azkenetarikoa omen naizen oso garrantzitsua naiz. Hemendik ganboitarren ejerzitoa nire jaunak zuzendu zuen".

3. "Urtetan bisitarien begiradez aingerua, santuak, afaria eta demonioa gorde nituen. Hori 1980. urtera arte izan zen. Orduantxe nire altxorra babesten zuen maskara apurtu egin zen"

4. "Nire lau hormek Enkarterri eta Bizkaiko idazle ospetsuenetariko bat babestu zuten. Nire barnean jaio zen orain dela 200 urte inguru. Nekazal familiakoa Biborantz jo zuen kronista eta artxibozain aprata honek. Guzti horren lekukoa izan naiz ni. Gaur egun aurkitu dezakezu ni izandakoaren zatia..."